

Alustiza, Oñatiko lehiaketara

Artzai zakurrekin aritzen da ▶ 7




Haurrak, kaleen errege

EKITALDIAK ▶ Ekitaldi gehienak beraiei zuzenduta izan ziren atzo Autorik Gabeko Egunean eskualdean: jokoak, muralak...

TRAFIKOA ▶ Kale eta plaza batzuk autoei itxita egon ziren, baina ohi baino auto gutxiago ez zen antzeman trafikoan ▶ 2,3



Tolosa. Trianguloan jokuak izan zituzten haurrek arratsaldean; txikienek liburuak irakurtzeko aukera izan zuten han bertan; Euskal Herria plazan bizikleta jokoak eta rokodromoa izan zuten. IRATXE ETXEBESTE



Irura. Elizako arkupeetan muralak margotzen pasatu zuten arratsaldea Ikastolako haurrek. GARAZI AZKUE



Zizurkil. Haurrak ginkanan ibili ziren goizean zehar jolasean, plazatik Ubare aldera. GARAZI AZKUE

TOLOSA ▶

Kubako dantza, kantu eta doinu herrikoiak, bihar Leidor zineman

Bere ohiturak eta tradizioa eskainiko ditu Camagüey Balet Folkorikoak ▶ 4



Europar zehar biran ari dira kubatarrak. HITZA

BIDEGOIAN ▶

Erakusketa, azoka eta jaia batuko dira

Igandean hasiko da Kultur Astea ▶ 5

AUTORIK GABEKO EGUNA ▶

Kaleak, haurrek jolas egiteko

Autorik Gabeko Eguna izan zen atzokoa, eta ekitaldiak izan ziren eskualdeko hainbat herritan; plaza eta kale batzuk itxi egin zituzten autoentzat, baina ohi baino auto gutxiago ibili zenik ez zen atzeman

G. AZKUE - I. ETXEBESTE

Europako Autorik Gabeko Eguna izan zen atzokoa, eta hainbat eta hainbat ekimen egin zituzten goizetik gauera eskualdeko zenbait herritan. Iazko egunaren aldean, baina, gutxiago izan ziren ekitaldiak. Izan ere, egun bakarraren lekuan aste osoa antolatu dute aurten mugikortasun iraunkorrari buruz, eta jardura horiek guztiak egun ezberdinetan banatu behar izan dituzte. Atzokoak, Autorik Gabeko Eguna, eman zion amaiera eskualdeko herrietan Mugikortasun Iraunkorraren Asteari.

«Autoen erabilera murrizteko eta oinezkoen bideak susta-

tzeko» helburuarekin, herrietako kale batzuk itxi egin zituzten atzo autoentzat. Plazak eta kaleak haurrentzako jolasleku bilakatu ziren, baina gainerantzean ez zen autoen erabileran alde handirik somatu. Autorik Gabeko Eguna izateagatik ez baitzen ohi baino auto gutxiago ibili kalean, eta garraio publikoa erabili zutenak ere ez ziren normalean baino gehiago izan, itxura batean.

Zizurkilén, goizean goizetik itxi zituzten kaleak ginkana erraldoia egiteko. Autoek ez zuten Ubare kaletik pasatzerik izan, eta hasiera batean Ernio bidea itxi bazuten ere, laster zabaldu behar izan zuten, autoak eta kamioiak pilatzen hasi

zirelako. Bestalde, hiru ikastetxeetako haurrek ekintzak egin zituzten herriko gune ezberdinetan: autoetan zenbat pertsona zeuden zenbatzen, inkestak egiten, bizikleta jokoak egiten... jardun zuten.

Anoetan, Ikastolan izan zuten jaia. Mugikortasun tailerak, ginkana, idazlanak... askotariko ekitaldiak egin zituzten ikasleek, eta Ikastola bera atondu egin zuten egun horretarako. Ohi baino bizikleta gehiago ikus zitezkeen, gainera, jolaslekuan.

Iruran, oinez egin zuten atzo ikasleek Ikastolarako bidea. Udaltzaingoa laguntzarekin, irakaslea kalez kale joan zen haurrak jasotzen, eta etxe-

rako buelta ere ibilian egin zuten. Kale Nagusian bide bakarra zegoen zabalik, eta San Migel plaza oinezkoentzat ireki zuten. Arratsaldean muralak margotzen aritu ziren umeak, eta jubilatua eta LH3-ko ikasleak zarata, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera... neurtzen aritu ziren.

Tolosan, oinezkoentzat egokitu zuten Euskal Herria plaza, eta haur eta gaztetxoentzat makina bat jolas antolatu zituzten bertan eta Trianguloan. Ikasleak ikastetxeetatik irteten zirenerako prest zituzten antolatzaileek haur liburutegia, bizikleta jokoak, herri jolasak, pintatzeko txokoa, rokdromoa, bizikletak konpontzeko

tailerra... Eta jolasean aritu zirenek txokolata dastatzeko aukera izan zuten Trianguloan. Alde Zaharra ere oinezkoentzat ziren jartzekoak udal ordetariak, baina autoak egunero bezala pasatu ziren Pablo Gorosabel kaletik.

Kutsadura murriztea, oinezkoen eskubideak aldarrikatzea, garraio publikoaren erabilera indartzea... Helburu horiek ditu Autorik Gabeko Eguna. Batzuk diote urtean egun bakarra izateak zentzurik ez duela eta autoen erabilera gutxitzeak eguneroko lana izan behar duela; ados daude beste batzuk ekimenarekin. Eta bazen atzo Autorik Gabeko Eguna zela oharitu ez zenik ere.



Tolosan, Trianguloan eta Euskal Herria plazan egin zituzten ekintzak: haur liburutegia, bizikleta jokoak, herri jolasak —argazkian—, txokolata jatea... Jende asko bildu zen. I. ETXEBESTE

HERNANI OKINDEGIA

sulabe

ogi egin berriena

Telf.: 943 55 40 50 • HERNANI

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



Tolosan, rokdromoa jarri zuten Euskal Herria plazan. G. AZKUE



Zizurkilen, haur eta gaztetxo asko bildu ziren bizikleta jokoetan parte hartzeko. G. AZKUE

Haurren testigantzak

Haurrak dira, agian, Mugikortasun Iraunkorraren Asteari eta Autorik Gabeko Egunari buruz egunotan gehien ikasi dutenak

G. AZKUE - I. ETXEBESTE

Bizikletak atontzen eta haur jolasetan parte hartzen, saskibaloira jokatzeko, pintatzen, irakurtzen... Autorik Gabeko Egunerako prestatutako ekimenean buru-belarri aurkitu genituen eskualdeko haurrak eta gaztetxoak atzo Tolosan, Iruan, Anoetan eta Zizurkilen. Lehen bi herrietan galdetu genien haurrei zer iritzi duten Autorik Gabeko Egunaren inguruan, eta hauxe erantzun dute:

XABI LASA
IRURA

«Iruan nabaritzen da auto gutxiago dabilela»



«Autoa gutxiago erabiltzeko egiten da egun hau. Iruan nabaritzen da auto gutxiago dabilela. Ikastolan esan digute erosketak egitera-edo joan behar bada autoa hartzeko, baina ahal den gutxienera erabiltzeko. Eskolara gaur oinez etorri gara, jendea erakusteko oinez ibili behar dela. Gainera, udaltzainak lagundu digu bide osoan eta autoak gelditzen zituen gu pasatzeko. Modu horretara, autoak lehenago gelditzen dira gu pasatzeko».

MIKEL MENDIZABAL
IRURRA

«Gutxiago kutsatzeko egiten da egun hau»



«Egun hau gutxiago kutsatzeko egiten da. Gaur ikastolan hori guztia azaldu digute, adibidez, lau lagunek leku berera joan behar badute hobe dela auto batean joaten badira. Goizean ere Loatzo plazan elkartu gara eta guztiak batera joan gara eskolara. Oso ongi iruditzen zait egun hau egotea, horrela ez dago horrenbeste arrisku kalean».

MAIALEN LOPEZ
TOLOSA

«Patinetan ibiltzeko aukera handiagoa dute»



«Oso ondo iruditzen zait Autorik Gabeko Eguna egitea, sarritan ibiltzen naizelako patinetan eta egun horretan aukera handiagoa dagoelako horretarako. Gainera, gutxiago kutsatzen dugu ingurua autorik kalean ibiltzen ez denean, eta alde horretatik ere egokia da Autorik Gabeko Eguna ospatzea».

ALAZNE EZEIZA
TOLOSA

«Kaskoak ikusi ditut gaur kalean gehien»



«Ondo iruditzen zait Autorik Gabeko Eguna ospatzea, kutsadura murrizten delako eta jendea gehiago animatzen delako oinez ibiltzera. Bizikletaz, behintzat, normalean baino jende gehiago dabil gaur. Kaskoak ikusi ditut gaur kalean gehien».

AMAI A GALLEGO
TOLOSA

«Egun hori antolatzen dutenei, zorionak»



«Autorik Gabeko Eguna antolatzen dutenei zorionak emango nizkieke, bizikletaz jende gehiago ibiltzen delako jendea egun horretan, eta, gainera, gutxiago kutsatzen delako autorik ibiltzen ez denean. Bestalde, haurrek aukera handiagoa dute kaleko hainbat txokotan jolasteko, eta oso ondo pasatzen dugu. Urtean gehiagotan antolatu beharko lukete egun hori; aberasgarria da guztiarentzat».



Iruan, muralak pintatzen jardun zuten Ikastolako ikasleek. G. AZKUE

ALAITZ ALDAZ
BERASTEGI

«Autoek asko kutsatzen dutela ikasi dut eskolan»



«Autorik Gabeko Eguna antolatzea ideia ona iruditzen zait, egun horretan askoz jende gehiago ibiltzen delako

bizikletaz, eta kutsadura txikiagoa delako. Autoek asko kutsatzen dutela, eta, horren aldean, trenaz, autobusez edo oinez ibiltzea hobe dela ikasi dugu eskolan. Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan ekinga asko egin ditugu eskolan eta kalean, eta asko ikasi dugu gai horren inguruan. Kontu horiek ikasteko jolas ugari egin ditugu, gainera».

TOLOSA ▶

Udaberri dantza taldean izena emateko aukera

Udaberri dantza taldeak urriaren 9an hasiko ditu haurrentzako dantza ikastaroak; 10:00etatik 11:00etara jasoko dituzte eskolak gaztetxok, larunbatero. Izena eman nahi duenak aurretik izango du aukera, Udaberriko egoitzan —Igarondo igerilekuaren alboan—: irailaren 29an eta urriaren 1ean 20:00etatik 20:30era; eta urriaren 6an, bestalde, 20:00etatik aurrera.

TOLOSA ▶

Naive taldearen emanaldia, bihar, Fronton kafetegian

Errioxako (Espainia) Naive taldeak emanaldia eskainiko du bihar, 23:30ean, Fronton kafetegian. *Naivety o la fuerza de la ingenuidad* beren lehen diskoaren lanak joko dituzte. «Izan bakun, izan inuzente. Horrela ñabarduraz betetako mundua deskubritzeko aukera izango duzu», da haien oinarri. Udal Kultur Batzordeak eta Fronton kafetegiak antolatu dute kontzertua.

TOLOSA ▶

Matrikulazioa Arramele AEK Euskaltegian

Arramele AEK Euskaltegian 2004-2005 ikasturterako matrikula epea zabalik da egunotan. Interesa duenak gaur eta bihar, 18:00etatik 20:30era, eman behar du izena, euskaltegian bertan (Kale Nagusia 7-2, solairua. Tolosa. 943 59 17 04). Maila guztietako ikastaroak eta EGA, alfabetatze nahiz hizkuntza eskakizunetarakoak eskaintzen dituzte, besteak beste, Arramele AEKn.

TOLOSA ▶

Burgosera irteera antolatu du Harizpek

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Burgosera (Espainia) egun osoko irteera antolatu du urriaren 7rako. Garoñako zentral nuklearra, eta Frias eta Oña herriak bisitatuko dituzte bi daiariek. Bazkideentzat soilik da txangoa. Dagoeneko eman daiteke izena, Harizpen; 11 euro balio du irteerak. Bazkide txartela erakustea ezinbestekoa da izena ematerakoan.

TOLOSALDEA ▶

Euskal presoan aldeko mobilizazioak eskualdean

Ettxerat-ek deitu ditu, hileko azken ostiralero legez, Tolosaldeko zenbait herritan

ERREDAZKIOA

Hileko azken ostiralero legez, Ettxerat-ek euskal presoan aldeko mobilizazioak deitu ditu eskualdean. *Euskal presoak Euskal Herrira* aldarria txoko guztietara zabaltzeko deia egin du horrela: «Dis-pertsioaren aurka gauden edonor *Euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikapenak, berriro ere, auzo, lantoki, eskola eta gure etxeko balkoi-taraino eraman ditzakegu».

Tolosaldeko zenbait herritan egingo dituzte kontzentrazioak, ohiko lekuetan: Adunan, Asteasun, Zizurkilen (goian), Villabonan, Lizartzan, Ikaztegiatan eta Amezetan 20:00etan; Anoetan, Tolosan, Ibarran eta Alegian, berriz, 19:30ean.

Urte politiko berriak piztu duen ikusminaz mintzatu da Ettxerat: «Udazkena bero dator, ikusmen handia dago abiatuko den urte politikoari begira, garrantzi handiko erabakiak eta akordioak har daitezkeelako. Ikusmen handia dago hemendik aurrera zer gertatuko den politikari-aren agenda berriarekin».

Era berean, sakabanaketa politikarekin «behin betikoz amaitu» behar dela berretsi du: «Agenda politiko horretan, ahaztu ezin den oso puntu garrantzitsua, urtero konpondu gabe gelditzen dena, gogoratu nahi dugu: *Euskal presoak Euskal Herrira* eskubidea eta aldarrikapena; gure herriarentzako bakea eta normalizazio politika bilatzeko hain garrantzitsua den konpondu beharreko asgnatura».

Zentzu horretan, politikari-ek ausardia eskatu die elkarteak: «Sakabanaketaren aurka dauden politikariak praktika hiltzaile honekin amaitzeko aukera ederra izango dute ikasturte berri honetan. Ezinbestekoa da Euskal Herriko alderdi politiko zein instituzioek beste aldera begiratzeari utzi, hitzetatik ekintzetara pasatu eta borondate eta maila politiko izatea, hainbeste sufrimenduri aurre egiteko».

TOLOSA ▶ DANTZA

Kubako dantza, kantu eta doinu herrikoien erritmora

Kubako Camagüey Balet Folklorikoak emanaldia eskainiko du, bihar, Leidorren; lurralde hartako ohiturak eta tradizioa ezagutzera ematea du xede taldeak



Hamasei lagunek osatzen dute Kubako Camagüey Balet Folklorikoa. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

musika eta ohiturak taularitzen dituzte; horixe da, hain zuzen ere, haien helburuetako bat: Kubako sustraiak han eta hemen zabaltzea, eta lurralde horretako ohiturak eta tradizioa ezagutzera ematea.

1991. urtean jaio zenetik, eta xede hori oinarritzat hartuta, bira ugari egin ditu. Reynaldo Etxemendia Estradaren zuzendaritzapean, sari ugari jaso ditu Kuban. Beren lurraldeko mugetatik haratago ere oso estimatua da taldearen lana; besteak beste, Ekuadorreko, Frantziako, Kolonbiako eta Espainiako hainbat jaialditan aipamen asko jaso ditu.

Kubako musika tresna tipikoak jotzen dituzte Camagüey taldekoek emanaldi guztietan. Dantzak ere herrikoiak dira: besteak beste, abilak dira *guajiro* izenekoak interpretatzen; Kubako nekazarien festak eta dantzak islatzen dituzte dantza horiek.

Biharko emanaldirako sarre-rak salgai daude egunotan, Kultur Etxean. Oraingo honetan, prezio bakarrean salduko dira: 8 eurotan.

FITXA ▶

Taldeak. Kubako Camagüey Balet Folklorikoa.
Eguna. Bihar, ostirala.
Ordua. 20:00.
Tokia. Leidor.
Salneurria. 8 euro.

LEIRE MONTES

Europar zehar egiten ari den biraren baitan, Tolosara ere etorri nahi izan du Kubako Camagüey Balet Folklorikoa. Lurralde hartako dantzen eta doinuen erritmoak aurrez aurre ikusteko eta entzuteko aukera izango da, bihar, Leidorren. 20:00etan hasiko da ikuskizuna.

Dantzariak, perkusionistak, kantariak... Guztira, hamasei lagunek osatzen dute Camagüey taldea. Kubako dantzak,

JAKON INGELESA

- MAILA GUZTIAK, AZTERKETA PRESTAKETA
- GOIZEZ, ARRATSALDEZ, LARUNBATETAN
- ENPRESETAN

AZKEN PLAZAK

P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA**
INFORMAZIOA: Telf. 943-652372 (16:00tik - 19:30era)

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

Erakusketa, azoka eta jaia uztartuko dira igandean Goiatzen

XV. Kultur Asteari hasiera emango dio ekitaldiak; Goiatzeko plazan, artisauak, nekazariak... bilduko dira



lazo azokan, garai bateko autoen erakusketak interes berezia sortu zuen bertaratu zirengan . O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Iaz Kultur Asteari eman zioten modu berean hasiko dute igandean, irailaren 26ean, Kultur Astea bidegoiandarrek; izan ere, erakusketa eta azoka izango da egun horretan Goiatzen. Egur-taila, maketagitza, pilotak, zestoak, larrua... lantzen duten artisauak izango dira bertan, aurreko urtean antzera. Beren lanak erakustez gain, lan egiteko prozesua ere ikusi ahal izango da.

Elikagaien eta produktuen salmenta postuak ere jarriko dituzte; eta, sardin eta sagardo probatzeko aukera ere izango dute bertaratzen direnekin.

Gai desberdinak jorratuz

Urriaren 2a bitarte ekitaldi, jarduera eta ikuskizun ugari antolatuko dituzte Kultur Astearen XV. edizioaren baitan.

Azokaren ondorengo egunean hitzaldiek hartuko dute le-

kukoa. Hurrengo asteartean, irailaren 28an, eta ostegunean, irailaren 30ean, Txus Kongil adituak garapen psikologiaren mugak eta arauak eta drogoimenpekotasunaren prebentzioaren inguruko hitzaldiak eskainiko ditu.

Urriaren 1ean, Ion Beloki mendizaleak *Jainkosen altzoan* mendi espedizioaren diapositiba emanaldia eskainiko du. Alberto Iñurrategi mendizalearekin batera Himalaya aldean egindako esperientzia jaso-

EGITARAUA ▶

IRAILAREN 26 (IGANDEA)

Goizean zehar. Erakusketa, azoka eta sagardo eta txakoli-dastaketa.

IRAILAREN 28 (ASTEARTEA)

15:00. *Garapen psikologia: arauk, mugak...* hitzaldia.

IRAILAREN 30 (OSTEGUNA)

15:00. *Drogomenpekotasunaren prebentzioa* hitzaldia.

URRIAREN 1 (OSTIRALA)

20:00. *Jainkosen altzoan* mendi espedizioaren diapositiba emanaldia.

URRIAREN 2 (LARUNBATA)

Egunean zehar. Haurrentzako jolas parkea.

16:00. Marrazki lehiaketa.

18:00. Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

Ondoren. Txokolatada.

tzen da bertan. Aipaturiko azken hiru ekitaldiak gela balioaitzean izango dira.

Haurrentzako ekitaldi antolatuko dituzte Kultur Astearen azken egunerako, urriaren 2rako. Egunean zehar haurrentzako jolas parkea jarriko dute; 11:00-etatik 13:00etara eta 15:00-etatik 18:00etara bitartean egongo da zabalik.

Arratsaldean, 16:00etan, marrazki lehiaketa hasiko da; «parte-hartzea irekia da; adin guztietako herritarrek parte hartu dezakete», antolatzaileek adierazi dutenez.

Txokolatea janez emango diete amaiera Kultur Asteari.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Adinekoei zuzendutako bi ekitaldi, aste honetan

Zahartzaroko gaixotasunak izango dituzte hizpide gaurko hitzaldian

O.ESKITXABEL

Zahartzaroko gaixotasunak ezagutu eta aurre egiteko gomendioak luzatuko ditu Biharko taldeko mediku batek gaurko hitzaldian. Gipuzkoako Kutxa Ikasgelak antolatzen du hitzaldia eta bertatik azaldu dutenez, «zahartzaroko berezko aldaketa fisiologikoen berri emateaz gain, egoera bakoitzean aurrean prebentzio eta tratamendu egokia egiteko gomendioak jasoko dituzte bertaratzen direnek». Prebentzio neurriak eta balorazio kliniko orokorra egiteko aholkuak ere luzatuko luzatuko ditu medikuak.

Hitzaldia, 16:30ean izango da Jubilatuen Elkartean.

Bizkaiako kostan barrena

Bizkaiako kostara irteera egingo dute bihar herriko adinekoei; 09:15ean abiatuko dira. Autobusak ohiko lekuetan jasoko dituzte herritarrik. Lekeition egingo dute lehenengo geldialdia; ondoren, Busturian bazkalduko dute; Itxas-begi jatetxean, hain zuzen ere. Marisko paela, legatza, tarta, kafea... izango dute jateko. Eta arratsaldean, Zumaian emango ondoren, herrira itzuliko dira.

iragarki laburrak ▶



Alegia. Ebebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Altzo. Ebebizitza ugari alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Andoain. 90 m²-ko ebebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua.

Berrobi. Hiru logelako ebebizitza salgai, sukaldia, egongela, bainugela eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Cintruenigo (Nafarroa). Hiru logelako ebebizitza salgai; bi solairu, altzariz

hornitua, txokoa, erretegia, piszina, sukaldia eta bainugela dauzka.

Kanpokaldera begira. Mandio.

669 87 19 09.

Corella. Ebe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldetz hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terenoarekin. Piszina eta guzti. Eta gainera, batzuk bimeneta dotorea.

13.500.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.

Elduain. Ebe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoak salgai. Informa zaitetz. Mandio. 669 87 19 09.

Goierri. Bi familientzako ebe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako ebebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pztz.

Ibarra. Zaldune auzoan bi logelako ebebizitza salgai; altzariez hornitutako sukaldia, kanpokaldera begira, trastelekuarekin eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Maestro Guridin, ebebizitza salgai; bi logelakoa eta kanpokaldera begira; sukaldia altzariz hornitua. Mandio. 669 87 19 09.

Irrua. Eraikuntza berriko 96 m²-ko ebebizitza, 38 m²-ko jardinarekin, balkoia, trastelekua eta garajearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio 669 87 19 09.

Lursaila. 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalean 70 m²-ko ebebizitza salgai, kanpokaldera begira. Balkoiarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Agintari kalean ebebizitza berria. 3

logela, 2. pisua eta igogailuarekin, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko ebebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m²-koa eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Araba etorbidean 97 m²-ko ebebizitza salgai, bizitzera sartzeko, balkoi handia eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan ebebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldiarekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalean, 70 m²-ko duplexa salgai; 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berritua eta berogailuarekin. 26.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Hiru solairuko baserria salgai, 500 m²-koa bakoitza, nekazaritzarako 10.000 m²-ko lursailak ditu. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Legorreta. Ebebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldia eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Txarama. 100 m²-ko ebebizitza salgai; hiru logela eta altzariz hornitutako sukaldia. Bizitzera sartzeko prest. 669 87 19 09.

LOKALAK

Goierri. Erretegia ingurune naturalean. Terrazarekin eta bezero finkoekin salgai.

Prezio interesgarrian. 669 87 19 09.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoak, sailhesbidea ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Abendurarte filmak ikusgai ostegunetan Ibarrrako Gaztetxean

Abendua bitarte proiektatuko diren filmak aurkeztu dituzte; orain artekoek harrera ona izan dutela diote antolatzaileek

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den urteko martxoan hasi ziren, Ibarrrako Gazte Asanbladak antolatutako, ostegunero Ibarrrako Gaztetxean filmen proiektzioekin.

Tolosan zine-kluba egiten zutela ikusirik, Ibarrran ere antzeko zerbait egin zitekeela pentsatu zuten eta ordutik asetero izan da gerturatzen den edonorentzat pelikula on bat ikusgai.

Ostegunero era guztietako filmak ematen hasi ziren Gaztetxean eta Ibarrrako Gazte Feste-kin batera atsedenaldi txiki bat egin zuten.

Udan, berriz, Ibarrrako plazan pantaila jartzea erabaki zuten, udako giroarekin kanpoaldean pelikulak ikustea atseginagoa izan zitekeelako. Gainera, lehen ere Emeterio Arrese plazan jarri izan dute pantaila udan filmak ikusteko eta ideia hori berreskuratzea zen beste arrazoietako bat.

Horrela, uda amaieran beste etenaldi bat egin eta gero, pasa den irailaren 16 an hasi ziren berriro Ibarrrako Gazte Asanbladakoak Gaztetxean filmen proiektzioekin.

Gustura ageri dira antolatuzaileak filmak ikustera joaten den jende kopuruarekin, filmaren arabera, herritar gehiago edo gutxiago gerturatzen delarik.

Pantaila berri bat jartzeko asmoa ere azaldu dute, kalitate hobez ikusi ahal izango direlarik pelikulak aurrerantzean.

Orain hasi eta abendua bitarteko emanaldiak prestatuak dituzte, eta gero berriro urtarrean jarraitzeko asmoa dute film gehiago doan ikusteko aukera eskainiz.

Gaur egungo filmak ikusteko aukera ematen du Ibarrrako Zine-klubak Gaztetxean, ostegunetan 21:45ean.



Ibarrrako Zine-klubeko kartela. HITZA

EMANALDIAK ▶

Ostegunetan Ibarrrako Gaztetxean 21:45ean izaten dira Zine-Klubeko emanaldi guztiak.

Gaur. *La espalda del mundo. Argentina.*
Irailak 30. *Imagining Argentina.*
Urriak 7. *Te doy mis ojos.*
Urriak 14. *La vida de David Gale.*
Urriak 21. *La pelota vasca /*

Euskal pilota.
Urriak 28. *Fahrenheit 9/11.*

AZAROA ETA ABENDUA

Antes que anochezca.
Al sur de Granada
Yo soy Sam
Monster
Silencio roto
El misterio Galindez
Generacion robada

LIZARTZA ▶

Belarritako bat azaldu da Lizartzan

Pasa den astelehenean, irailak 20, belarritako bat aurkitu zuten Lizartzan. Belarritakoa Lizartzako udaletxean aurkitzen da, eta beraz, galdu duenari bertaratu dadila jasotzera eskatzen zaio. Galdutako belarritako honi buruzko informazioa nahi izan ezker telefono zenbaki honetara hots egin daiteke: 943 67 07 00

LEABURU ▶

Jubilatuak bazkaria egingo dute egandean

Igande honetan, irailaren 26 an, jubilatuen eguna ospatuko dute Leaburun. Urtero egiten duten bezala, mezarekin hasiko dute eguna 12:30ean eta ondoren bazkaria izango da Zazpibide elkartearen dantzariak ere izango direlarik ospakizuna alaituz. 60 bat lagunek ematen du urtero izena Leaburuko jubilatuen eguneko bazkarian.

IBARRA ▶

III. Ibarra Herria Saria Xake Txapelketa

Igandean, irailak 26, IXE, Ibarrrako xake elkarteak antolatutako III. Ibarra Herria Saria txapelketa jokatu da. Goizeko hamarretan du hasiera ordua eta Euskal Herria kalean arituko dira. Beraun-Bera, Eibar, Fomento, Ibarra, Logroño, Tolosa, Fortuna eta Zornotza izango dira gonbidaturiko taldeak.

BERASTEGI ▶

Kultur Astearen egitaraua landuko da gaur

Azaroan izango da Berastegin Kultur Astea, baina gaur hasiko dira prestaketa lanekin. Gaueko bederatzietan bilera egingo da udaletxeko aretoan, eta herriko elkarte, talde eta parte hartu nahi duten herritarrei bertaratzeko deiladia egin zaie Kultur Astearen egitaraua lantzen hasitako helburuarekin.



Jubilatuak giro onean

GAZTELU ▶ Urtero bezala, irailaren 19 an jubilatuen eguna ospatu zuten Gaztelun. Eguerdiko mezaren ondoren Kontzejn bidu ziren herritarrek bazkaria egiteko. Bazkari honetan trikitilariak eta bertsolariak izan ziren bertako giroa alaitu zutelarik. Udaleko ordezkariak ere ez zuten hutsik egin ospakizun honetan, parte-hartzaileen eta lagundu dutenei eskerrak eman nahi izan dutelarik. Trikiti doinu eta bertsoekin. 19:00 ak arte luzatu zen festa. HITZA

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LEITZA ▶

Bihar, hileroko azken ostiraleko kontzentrazioa

Bihar, irailak 24, hilabeteko azken ostirala izaki, Euskal Herri osoko herritan presoen alde egiten diren ohiko kontzentrazioen baitan, Leitzan ere deialdi horrekin bat egiten dute, azken urte mordoska batean. Ekitaldi hau *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean burutzen da, iluntzean, 20:00etatik aurrera, eginen da, eta beren elkartzuna adierazi nahi duten guztiak plazara azaldu behar dute. Ondoren, kontzentrazioa, Lopeneko atariko biribilune inguruan, kruzean eginen da ohiko moduan ere.

LEITZA ▶

Patxi Arrazolan urak kenduko dituzte gaur

Udalak igorri duen ohar baten arabera, Patxi Arrazola auzoan ura moztuko dute gaur, goizetik hasi eta arratsaldera arte, zehazki 9:00etatik, 15:00etara. Jakina da dagoeneko auzo horretako urbanizaketa eta zolaberritze lanak hasita daudela, eta hain zuzen ere horixe omen da ur-mozketa honen zergatia: nonbait hauek dirauten bitartean auzotarrek edateko uraren hornidura ziurtatua izan dezaten, beharrezkoa den hoditeria airetik jarri behar omen dute «auzotarrei ahalik eta eragopen gutxien sortzeko moduan» eta hori egin ahal izateko ura moztu beharrean aurkitu dira. Auzoan bertan egiaztatu denaren arabera, eraikuntza guztietan jada airean jarrita dago ura ibiliko den hoditeria hori, apeoekin. Orain guztiak elkartu eta herriko ur-sareari lotzea faltako litzake, zerbitzua bermatuz.



Hodiak zintzilikatzen. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ UDALA

Bihar ohiko udal batzarra izanen da, gai-orden motzekoa

Tramitezko gaiak dira eztabaidagai, hamabost egun baitira bestea eginik



Leitzako udaletxeko bulegoetako sarrera. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar, hilabeteroko azken ostiraleko martxari jarraiki, ohiko udal batzarra burutuko da, 21:00etan, Leitzako udaletxeko

batzar aretoan eta gai-zerrenda motza dute oraingo kasuan, eztabaidatzeko bost puntu besterik ez baitituzte eta haiek tramitezkotzat jo daitezkeenak gehienak ere.

Ogasunari dagozkion hiru puntu izanen dituzte mahai gainean: Patxi Arrazola auzoan burutzen ari diren urbanizaketa eta zolaberritze lanen finantzaketan erabiltzeko mailegu eskaera alde batetik; kontu zenbaki aldaketa, bestetik; eta Iruso etxearen enkantean, behin betiko esleipena eginen da azkenik.

Bestalde, udal langilegoaren lan kontratuen inguruan ere ariko dira, lan kontratuko langile finkoak Nafarroako Administrazioa Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuan sartzeko prozedurari hasiera eman edo ez erabakiz.

Eta eztabaidarako azken puntu gisa, Beteluko zahar etxea eta eguneko zentroarekin egin beharreko hitzarmenaz jardunen dute.

ARESO ▶ ARTZAIN TXAKURRAK

Antonio Alustizak ez du saririk lortu Euskal Herriko Txapelketan, Durangon

Oñatin jokatu den nazioartekoan ditu jarrita itxaropenak aresoarrak

J. ASTIBIA

Antonio Alustiza aresoarrak ez zuen saririk eskuratu, aurreko igandean, irailaren 19an, Durangon jokatu zen Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan.

Egin beharreko hiru frogetatik lehenbizikoa izaten ohi da txakur bakoitzaren lana definituko duena, banderina. Eta horretxetan izan omen zuten okerra edo, *Argi*, Alustizaren txakurrak: bandera baten, bakarraren, atzetik pasatzea. «Hori ez da oker handia, ez eta gutxiagorik ere, baina kasu honetan nahikoa izan zen saikalepenetik kanpo gelditzea», zioen. Berak argitu zuenez, 11 txakur aritu ziren jokoan eta horietatik lehenbizikoa seiak jarraitu zezaketen jokoan eta hurrengo frogak egin eta «justu justuan seiak ez zuten akatsik egin banderinen froga honetan», eta noski horiek izan ziren artaldearekin lanean ja-

Alustiza, *Argi*-rekin. J. A.

rraitzeko eskubidea izan zutenak.

«Beti geratzen da halako penatxo bat, azkenik txakurrak lana nola egiten duen erakusteko aukerarik ez delako izan», baloratu zuen, baina berak zioenez, «ondoren bazkarian eta beste artzainekin hitz eginez eta, aitzakia horrekin egun ederra botatzen da eta, hainbestean».

Orain burua Oñatin du dagoeneko, hango Santa Luzia ze-

laietan jokatzen baita datorren igandean, 45. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa. Kasu horretan dozena bat-hahiru txakurrek parte hartuko dute, Euskal Herriko artzainen esanera ez ezik, Frantziako, Kataluniako, Mallorcako eta beste hainbat herrialdeetako aginduetara, bakoitzak berearekin noski eta ohiko hiru frogak gainditu beharko dituzte han ere.

«Oso zuzen, dena ongi egin beharra dago», adierazi zuen kasu honetan, Aresoko lehiakide honek eta aste hau guztia banderinekin ariko omen dira lanean. «Behin froga hori gaintu eta ardiatara igaroz gero, itxaropena izateko moduan ginateke», zioen animoso. Edozein moduz eginahal guztiak eginen omen ditu «mazioartean lehiatzeko aukera honetaz baliatu beharra dago», esanez.

Beraz, Alustizenetik joanda, hantxe izanen da Oñatin, *Argi* bere artzain txakurrekin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbul.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte, Korreo, 20, (Tolosa), 943 67 60 13.
Larraia M.I. Elbarren, 95 (Leitza), 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Tolosa. Neska behar da Tolosan bi haur zaindu eta ebeko lanak egiteko. Tfnoa.: 943 01 62 08.
Leitza. Pertsona bat behar da asteburuetan Leitzako taberna batean lan egiteko. 619 450 249

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Kultur Astea prestatzen hasteko lehen bilera. Udaletxean 21:00etan.

Berastegi. Eskolaz kanpoko ikastaroetan izena eman daiteke eskolan bertan.

Tolosa. Egun hauetan helikoptero bat ari da Tolosaldean bueltaka. Tolosa 750 Fundaziotik jakinarazi nahi dute beraien enkargatuta ari dela eskualdeko irudiak grabatzen.

Tolosa. Peñascal Fundazioak Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du. 943 67 61 61

Tolosa. Harizpek urriaren 16tik 30erako oporrak antolatu ditu Benidormen. Izen-ematea hilaren amaiera arte elkarteetan bertan.

Tolosa. Gimnastika erritmikoko eskolan izen-ematea Igarondo igerilekuan 17:00etatik 19:30era eta Tolosa CFko bulegoetan.

Villabona. Hirugarren Adineko XX. Astean, bakailao lehiaketa 18:30ean Biltokin. Epaiaeren ondoren kazuelak bazkideei banatuko zaizkie.

Villabona. Euskara ikasteko diru laguntzak. Informazioa: Udal Euskara Zerbitzua 943 69 35 01 (9:30-14:00)

Villabona. Erraustegiaren aurkako plataformaren bilera 20:00etan udal euskaltegian.

ERAKUSKETAK

Anoeta. Emakumeen eskubideak. Udaletxeko bideo gelan. Gaur azken eguna.

Hernialde. Leire Markinezen koadroak Ostatuan.

Tolosa. Miren Gonzalez. Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Zaharkinak.* Hilaren 26a arte, Ferialekuan. Gaur 19:00etan, bisita gidatua.

Tolosa. May Colmenero pintura eskolako ikasleen lanak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Txaro Medrano. Sorron koadro dendan.

Tolosa. Marisa Vivanco. Saikin tabernan.

Tolosa. Olivia Sanchez. Lanbroa tabernan.

Tolosa. Ricardoren zapatak. Oskarbi tabernan.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitziber Aiestaran Elordi (Ibarra).
Gaur 3 urte. Zorionak familiaren partetik



URTE ASKOAN
Joana Bildarratz.
Gaur 11 urte. Muxu handi bat Itsasok, Onintzak eta Anek.

Italiatik Argentinara

TOLOSA ▶ Tolosar hauek Marcoren ibilbidea jarraitu dutela dirudi; bidali zuek ere oporretako argazkia HITZAra testu txiki batekin

ITALIA ▶

Amaia, Irati eta Xabi (Tolosa).

Italia inguruan ibili da familia tolosar gazte hau eta argazki polit hau bidali digu:

«Italiako ikuspegi onena da bidaltzen dizuegun hau. Florentzian atera genuen, izoztegi bateko erakusleihoan. Ezin izan genion tentazioari uko egin».



ARGENTINA ▶

Itsaso eta Gorka (Tolosa).

Argentinan zehar ibili dira uda honetan Itsaso eta Gorka tolosarrak eta Iguazuko urjauziak gustatu zaizkie gehien:

«Ilepa koadrila! Buenos Aires, Iguazu, Bariloche... ezagutzeko aukera izan dugu eta denen artean irudi xarmangarri honekin gelditzen gara. Negu gorria da Argentinan».

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!